

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko hainbat sailtako lanpostu-zerrenda aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 3an egindako bilkuran

Lanpostuen zerrenda (LPZ) administrazio publikoek plazen eta lanpostuen egitura antolatzeko erabiltzen duten nahitaezko tresna teknikoa da, kalitateko zerbitzu publikoa eskaini eta enplegatu publikoak behar bezala kudeatu ahal izateko. Sailek adierazten dituzten beharren arabera antolatutako egintza da, haiek zehazten baitituzte antolakunde osoa eratzen duten lanpostuetan jarduteko betekizunak. administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalmenaren adierazpena da, legeak babestua.

Lanpostu-zerrendan lanpostuaren funtsezko ezaugarriak, eginkizunak eta lanpostua eskuartzeko betekizunak agertzen dira. Tresna dinamiko bat da eta udalbatzak une bakoitzean dituen beharrei erantzuten die. Horregatik ezinbestekoa da hura egokitu eta aldatzea, erakundeak dituen beharrak bete behar baititu.

Antolakuntza-arrazoia direla eta, aldaketa partzial bat egin beharra dago, udal sailtako arduradunek jakinarazi dituzten premiak eta Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak egokitzen eta beharrezkotzat jo dituenak aintzat harturik.

Ildo horretatik, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 90.2 artikulua eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak xedatzen dute derrigorrezkoa dela lanpostu-zerrenden bitartez egituratzea erakundeak. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren arabera, gainera, tresna hori publikoa izango da.

Bestalde, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak haxe dio 45. artikuluan:

2. Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratadun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

6. Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezeko tresnak.

Halaber, Administrazio Publikoak, bere burua antolatzeko duten eskumena dela eta, zerbitzuak egokien deritzon moduan antola ditzake, eraginkorrak izan daitezten, Konstituzioaren 103.1 artikuluan emandako aginduaren ildotik, eta bere interesak betetzeko antolaera egokienak aukeratu.

Hortaz, efikazia hori lortze aldera, eta kontuan izanik zenbait lanpostutan egokitzapenak egiteko premia, Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak txosten arrazoitu bat egin du, beharrezkotzat jotzen baitu lanpostuak oraingo jarduera-eremuari eta zereginei egokitzea, erakundeak eskatzen duenari hobeto erantzutearren. Aldaketa eranskinean jasotzen da.

Proposamen honetan jasotzen diren aldakuntzak indarrean dagoen araudiaren ildotik izapidetu dira, eta aldeko txostena egin du udal kontu-hartzailetzaren organoaren titularrak aurrekontu-kreditua egoteari buruz.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 37.2 artikuluan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, bilerak egin dira udaleko langileen batzordearekin, 2023ko otsailaren 9an eta 16an hain zuzen.

Euskal Enplegu Publikoaren Legeak 45.3 artikuluan xedatzen du lanpostu-zerrendaren aldatetak lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu behar direla.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.artikuluak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaleko zenbait sailtako lanpostu-zerrendaren aldaketa onestea, eranskinean adierazten denaren arabera.

Bigarrena. Giza Baliabideen Sailari agintzea behar diren izapideak egin ditzan lanpostu-zerrendak aldatzeko.

Hirugarrena. Lanpostu-zerrendak aldatzeko erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara. Orobat jakinarazten da erabakiak administrazio-bidea agortzen duela, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOean argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorri buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 22an

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Eranskina

1. Lanpostuaren izendapena aldatzea

02- Lurraldea eta Klimaren aldeko Ekintza.

Zerbitzu Juridiko Administratiboko administrazio atalari (021601.238) atxikitako Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren administrazio buruaren lanpostuari (ID 7873) izena aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 601 (Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentzia) edo 640 (Zuzenbideko lizentzia); eskala: administrazio berezia, azpieskala: teknikoa, mota: goi mailako teknikaria (2110A) eta eskala: administrazio orokorra, azpieskala: teknikoa (1100A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 26; berariazko osagarria: 35; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela: 05.

Aurrerantzean:

Zerbitzu Juridiko Administratiboko burua.

23- Hezkuntza eta Kultura.

1. Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia - txistu bandari (231202.1488) atxikitako perkusio irakaslea lanpostuari (ID 9010) izena aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z465 (Batxilergoko titulua, edo Lanbide Heziketako teknikariaren titulua, edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak —LOE—, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala, perkusio espezialitatean, edo baliokideak, eta Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza, pandero espezialitatean); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2019/02/01; destino osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela 05.

Aurrerantzean:

Perkusio-pandero irakaslea.

2. Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia - txistu bandari (231202.1484) atxikitako musika-piano irakaslea lanpostuari (ID 9008) izena aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z420 (batxilergoko titulua, edo lanbide heziketako teknikariaren titulua, edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak —LOE—, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala, piano espezialitatean); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2019/02/01; destino osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 50; It txartela 05.

Aurrerantzean:

Piano irakaslea-errepertorista.

2. Lanpostuaren betekizunak aldatzea

03- Herritarren Segurtasuna.

Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko Azpieskala Operatiboaren Atalari (034030.9007) atxikitako suhiltzaile espezialista lanpostuaren bi dotazio (ID 7169 eta ID 663) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C2; titulazioa: 200 (eskola graduatua, LH1 edo baliokidea); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: su itzaltze zerbitzua (2220D); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2008/12/19 (ID 7160) eta derrigortasun datarik gabea (ID 663); destino osagarria: 17; berariazko osagarria: 850; dedikazioa: ehuneko 100.

Aurrerantzean:

Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko azpieskala operatiboaren atalari (034030.9007) atxikitako suhiltzaile espezialista lanpostuaren bi dotazio (ID 7169 eta ID 663). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C2; titulazioa: 200 (eskola graduatua, LH1 edo baliokidea); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: su itzaltze zerbitzua (2220D); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2023/03/03 (ID 663) eta derrigortasun datarik gabea (ID 7160); destino osagarria: 17; berariazko osagarria: 850; dedikazioa: ehuneko 100.

08- Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa.

Biltzar Zerbitzuko Biltzar Atalari (082401.1027) atxikitako turismoko goi mailako teknikariaren lanpostua (ID 9313) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 655 (publizitate eta harreman publikoetako lizentzia) edo 610 (informazio zientzietako lizentzia) edo E43 (turismo) edo E02 (enpresen administrazioa eta zuzendaritza); eskala: administrazio berezia, azpieskala: tekniko, mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2022/10/14; destino osagarria: 24; berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela 05.

Aurrerantzean:

Biltzar Zerbitzuko biltzar atalari (082401.1027) atxikitako turismoko goi mailako teknikariaren lanpostua (ID 9313). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 655 (publizitate eta harreman publikoetako lizentzia) edo 610 (informazio zientzietako lizentzia) edo E43 (turismo) edo

E02 (enpresen administrazioa eta zuzendaritza), betekizun gehigarria: ingelesa C1 egiaztatzea; eskala: administrazio berezia, azpieskala: teknikoa, mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2022/10/14; destino osagarria: 24; berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela 05.

3- Lanpostua aldatzea

23- Hezkuntza eta Kultura.

Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia - txistu bandari (231202.1484) atxikitako piano musika irakaslea lanpostua (ID 1297 eta ID 9009) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z420 (Batxilergoko titulua, LHII edo baliokidea, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala solfeo, musikaren teoria, transposizio eta akonpainamendu espezialitatean, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala piano espezialitatean); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2002/12/31 (ID 1297) eta 2019/02/01 (ID 9009); destino osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela 05.

Aurrerantzean:

Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia - txistu bandari (231202.lanpostu kode berria) atxikitako musikaren lengoaiaren eta hastapenen irakaslea lanpostua (ID 1297 eta ID 9009). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 420 (batxilergoko titulua, LHII edo baliokidea, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala solfeo, musikaren teoria, transposizio eta akonpainamendu espezialitatean, eta erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala piano espezialitatean); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2002/12/31 (ID 1297) eta 2019/02/01 (ID 9009); destino osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela 05. Gainera, ID 9009 dotazioak 1. maila egiaztatzeko betekizun gehigarria du.

4- Lanpostuaren lanaldiaren ehunekoa aldatzea

Langileen Administrazioaren Zerbitzuko administrazio atalari (091101.2005) atxikitako administrari lanpostuaren dotazio bat (ID 8984) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 (batxilergoko titulua, edo lanbide heziketako teknikariaren titulua, edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak —LOE—); eskala: administrazio orokorra, azpieskala: administrazioa (1200C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2016/11/07; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 176; dedikazioa: ehuneko 67; it txartela: 03.

Aurrerantzean:

Langileen Administrazioaren Zerbitzuko administrazio atalari (091101.2005) atxikitako administrari lanpostuaren dotazio bat (ID 8984). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 (batxilergoko titulua, edo lanbide heziketako teknikariaren titulua, edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak —LOE—); eskala: administrazio orokorra, azpieskala: administrazioa (1200C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2016/11/07; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 176; dedikazioa: ehuneko 100; it txartela: 03.